

Kultura Egiatarua Alegria-Dulantzi



Alegria-Dulantziko Udala
Ayuntamiento Alegria-Dulantzi

2017-2018 IKASTURTEA

Alegria-Dulantzi

“kulturaren bitarteko eraldaketa pertsonalaren eta sozialaren alde”

FUSIONARTE Txema blasco auditoriuma

Programa honek hainbat arte eszenikoren fusio-proposamenak uztartzen ditu, izendatzaile komun batekin: **MUSIKA**.

HAUR ORKESTRARAKO

KONTZERTUA

CIA L'HORTAK aurkezten du... Liliput

Urriak 8, igandea – 18:00

Haur-orkestrarako kontzertua, irla bati buruzkoa. Liliput ipuin xume eta poetikoa da. Zuzeneko musika publiko gaztetxoaren ekarpenekin nahasten dituen soinu-unibertsoa. Liliput mundu



ñimiñoa da, oso berezia, eta, zentzu askotan, gure munduaren isla ere bada.

Sormenezko esperientzia honetan, irudi eta soinu-kaleidoskopio bat sortzen jolastuko gara, zentzumenak estimulatzeko eta haur eta helduen jakin-nahiari eragiteko. Elkarrekin lotuta, musikak, poesiak eta umoreak bidaia bat sortuko dute, besteak beste birziklapena eta ingurumenarekiko errespetua balio gisa azpimarratuta.

Publiko guztientzat gomendatua, bereziki 3 urtetik gorako haurrentzat.

Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailaren laguntzarekin.



Sarrerak Kultur Etxean salgai.

Arrunta: 3 € - Murriztua: 65 urtetik gorakoentzat, langabeentzat eta 20 urtetik beherakoentzat: 1,5 €.

Abonamendu berezia: "Kultur sustapenerako".

Ikuskizun baterako edo guztietarako 6 sarrera erosiz gero, sarrera bat doan jasoko duzu.

(Sarrera arruntak murriztuekin konbinatzen badira, merkeena izango da doako sarrera).



GOSPEL KONTZERTUA

“EVENING PRAYER”, LIDIA INSAUSTIrekin

Urriak 21, larunbata – 19:30



Aukera
ezin
hobeaz
gospel-

musikaren divei eskainitako kontzertu-omenaldi honetaz gozatzeko. Lidia Insaustiren ahotsaz eta Iñaki Miguelen pianoaz lagunduta, estilo hau jorratu duten ezinbesteko artista famatuaren abestiez gozatu ahalko dugu. Evening Prayer emanaldiak oso konposizio espiritual eta erlijio-kutsu handikoak hartuko ditu bere baitan; baita oso kanta animatuak ere bai, publikoak ikuskizunarekin bat egin dezan.

Publiko gaztearentzat eta helduentzat.

Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailaren laguntzarekin

DANTZA, MUSIKA ZUZENEAN ETA MULTIMEDIA

MUCAB DANSEk aurkezten du... “BURBUJAS DE PAPEL”

Urriak 22, igandea – 18:00

Proposamen bisual eta plastiko hau haurren eta helduen irudimenarekin jolasten da, eta dena gerta daitekeen eremu batera eramaten gaitu. Bertan, ibilbidea egiten du mundu fantastiko batetik,

xaboi-burbuilez,
paperezko burbuilez,
burbuila digitzalez,
puzgarriz, itzalez,
argi beltzez... josita.
Ikuskizun magiko eta
dinamikoa dugu hau,
eta haurrek, gurasoek
eta aitona-amonek ezin
izango dute begirada
agertokitik kendu;
azkenean, haiek ere
modu aktiboan hartuko
dute parte.



XIV. Dantza Zirkuituaren barruan (Sarea-Eusko Jaurlaritza).

Publiko guztientzat gomendatua, bereziki 3 urtetik gorako haurrentzat. 55'- Testurik gabe. Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailaren laguntzarekin.

TXEMA BLASCO ZINEMA ZIKLOA



Aukera ezin hobea itzal handiko aktore arabar honen filmografia ezagutzeko, alegia, gure auditoriumari izena ematen dion eta Antzerki Amateur Jaialdiaren bidez Dulantzirekin harreman estua duen Txema Blasco aktorearena.

Zikloaren baitan, pelikula eta film labur sorta bat eskainiko da, nazioarteko karrera prestigiotsua ahalbidetu dion haren aktorelan bikaina ezagutzeko.

19:30

Txema Blasco auditoriuma

Publiko gaztearentzat eta helduentzat


Antolatzailea: Lautada Martxan
Sarrera dohainik tokiak bete arte

Iraila

29, Ostirala

"CARNE DE GALLINA" (2002)- 92'

Zuzendaria Javier Maqua



Urria

6, Ostirala

"SIEMPRE HAY TIEMPO" (2009)- 84'

Zuzendaria Ana Rosa Diego

20, Ostirala

"EL DÍA NUNCA, POR LA TARDE" (1994)- 104'

Zuzendaria Julian Esteban Rivera

27, Ostirala

FILM LABURRAK

"JUGANDO CON LA MUERTE" (2010)- 17'

Zuzendaria Paul Urkijo Alijo

"CAMINANTE" (2013)- 12'

Zuzendaria Joaquin Calderón

"EL AUDIFONO" (2013)- 14'

Zuzendaria Samuel Quiles Palop



kulturaren bitarteko eraldaketa pertsonalaren eta sozialaren alde

XI. ANTZERKI AMATEUR

JAIALDIA

Sarrerak Kultur Etxean salgai, urriaren 23tik aurrera.

Jaialdia: azaroaren 3tik 19ra - Ostiral, larunbat eta igandetan. – Programaren baitan, haurrentzako antzezlan bat ere izango da.

Amaiera-gala: azaroaren 25ean, larunbatetan.



JAIALDIRAKO SARREREN BIDEZ, KULTURAREKIKO ZURE INTERESA SARITZEN DUGU SARRERA ZOZKETA!!!

Txema Blasco Auditoriumeko urriko jardueretan parte hartuko duen edozeinek eman dezake izena Antzerki Jaialdirako sarreraren zozketan.

KORU KONTZERTUA

ARABA KANTAN programaren barruan

ANDERE DE LLODIO KOROA

Urriak 1 igandea – 13:00 – San Blas elizan

Arabako Koru Federazioak antolatzen du musika korala gure herrialdeko bazter guztietara eramango duen programa hau.

Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailaren laguntzarekin



kulturaren bitarteko eraldaketa pertsonalaren eta sozialaren alde

ARGAZKI ERAKUSKETA

Urriaren 16tik 28ra

ORGANOAK EMATEAREN ITXAROPENA IRUDIETAN

“Organoak emateko katean, denok izan
baikaitezke emaile eta hartzaile”



Erakusketan, Atcore Elkarteak antolatutako hainbat txapelketako 40 argazki biltzen dira, organoak ematearen inguruan sensibilizatzea helburu; bereziki aurtan, lehenengo bihotz-transplantearen 50. urteurrenean.


Laguntzailea: Atcore, Euskadiko Bihotz eta Birika Gaixoen eta Transplantatuen Elkarte.

Erakusketa-aretoa

Astelehenetik ostiralera 16:30-20:30

Larunbatetan 11:30-13:30

ROLLOS DE FAMILIA



Etxeko zinema berreskuratzeko proiektua

Gasteizko Fosforo Kultur Elkartearen eskutik

Dulantziko etxeko zinema berreskuratzeko proiektuaren aurkezpena, eta 50eko eta 80ko hamarkadetako eskualdeko film-hautaketaren emanaldia. Super 8 formatuko proiektzio analogikoa berriz ikusteko topaketa, baita esperientziak eta oroitzapenak partekatzeko ere.

Elkarteak bereziki gonbidatu nahi ditu parte hartzera etxeko grabazioak izan ditzaketen dulantziarrak, proiektua ezagut dezaten.

Azaroak 8 asteazkena – 19:00
Hitzaldi-aretoa

Organiza: Fosforo Kultur Elkarte. Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailaren laguntzarekin.

MUSIKA ESKOLAKO TALDEAK

Musika Eskolako ikasle edo ikasle ohia bazara, edota instrumenturen bat jotzen baduzu eta musika-talderen batean parte hartu nahiko bazenu, hauxe duzu Musika Eskolako eskaintza:



Big Band

Entseguak: ostegunetan 20:00-21:00

Folk-taldea

Entseguak: ostegunetan 20:15-21:15

Instrumentu-taldea

Entseguak: ostiraletan 17:45-18:45

Helduen Abesbatza

Entseguak: asteazkenetan 19:15-21:45

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Kultur Etxera

BERDINTASUN ZERBITZUA AUTODEFENTSA FEMINISTA TAILERRA

14 urtetik gorako emakumeentzat,
adin-mugarik gabe

Urriak 28 larunbata

10:00etatik 14:00etara eta
16:00retatik 20:00etara - (8 ordu)

Izen-ematea Kultur Etxean, urriaren
23ra arte.



EMAKUNDEREN AUTOBUS IBILTARIA

BERDINTASUNERAKO XIV. FOROA 2017-REN BARRUAN

Azaroak 16 osteguna 16:00-20:00 - Plazan

Erakusketa ibiltaria egiteaz gain, autobusak askotariko materiala dakar, bisitariarik berdintasunaren aldeko eguneroko ekintzei eta jokabideei buruz hausnartzeko, eta haietaz jabetzeko.



ADIMEN EMOZIONALAREN TAILERRA

Gure errealitatearen sortzaile gara eta gure bizitzaren jabe izan gaitzkeela ohartzeko.

Zenbait dinamikaren eta norberaren gaineko ezagutzaren bidez, eraldaketa-prozesu bat hasteko erremintak ezagutuko ditugu, gu geu izateko gure bizitzako protagonistak.

Bi ikastaro


1

Neure burua zenbat eta gehiago ezaguti, orduan eta maiteago dut: Nire historia

Urriaren 19tik azaroaren 16ra

5 saio – 10 ordu

Ostegunetan, 19:00-21:00



2

Neure burua zenbat eta gehiago ezaguti, orduan eta maiteago dut: Inkontzientearen Legeak
Azaroaren 23tik abenduaren 21era

4 saio – 8 ordu

Ostegunetan, 19:00-21:00

Irakasleak: Yolanda Martín eta Nerea Nacenta, kudeaketa emozionalean adituak.

Parte-hartzaileak: pertsona helduak, norberaren burua ezagutzeko prozesua hasteko prest daudenak.

Hizkuntza: gaztelania.

Kuota: 30 €Erroldatuentzat % 30eko hobia: 21 €

Izen-ematea Kultur Etxean, urriaren 16ra arte, eta sakontze-ikastarorako azaroaren 20ra arte.

kulturaren bitarteko eraldaketa pertsonalaren eta sozialaren alde

IV. LAUTADA EGUNA

“Lautadaren Taupada”

Dulantzin – Azaroak 5 igandea

Jaieguna eta LAUTADA eskualdeko herrien arteko topaketa-eguna; goiz osoan, hainbat ekintza egingo dira: Nordic Walking Martxa, Mikologia Erakusketa, Buruhandien Erakusketa, Azoka, Lautadako abesbatzen topaketa, Haur-tailerrak, gastronomia-jarduerak, euskal dantzak, etab.

LANDA GARAPENERAKO I. ASTEA

Azaroaren 6tik 12ra, eskualdeko hainbat herritan askotariko jarduerak egingo dira: berdintasuna, merkataritza, turismoa, nekazaritzako elikagaiak, ingurumena, kultura, eta abar; xedea da gure eskualdeari buruzko hausnarketa egitea eta zenbait alor garatzen laguntzea.

Informazio gehiago bi ekintzen egitarauetan eta berriazko karteletan.

Koordinatzailea: LAUTADA LANDA GARAPEN ELKARTEA



HITZALDIA-BISITA

Ondarearen Europar Jardunaldien barruan

Miguel Lozaren eskutik

Azaroak 4 larunbata – 11:00 – San Blas elizan.

Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

**EUSKARA,
KIROLA, KULTURA
ETA GIZARTE EKINTZA
ARLOETAKO UDAL
DIRU LAGUNTZETARAKO
DEIALDIA**



Hartzaileak: elkarteak eta norbanakoak.

Eskabideen aurkezpena: urriaren 10etik azaroaren 10era, Udaletxean eta Kultur Etxean.

Baldintzak: webgunean, Udaletxean eta Kultur Etxean.

GIZARTE SUSTAPENA

“Paulo Freire” HELDUEN HEZKUNTZARAKO IKASTETXEA

Eusko Jaurlaritzako Helduen Hezkuntzarako Zentro Publikoa.

Zentroan, hau guztia egin dezakezu:

- **Bigarren Hezkuntzako Graduatua** lortu.
- Unibertsitaterako Sarbide Proba prestatu.
- **Goi Mailako Hezkuntza Zikloetarako Sarbide Proba** prestatu.
- **Gaztelania-maila** hasi edo hobetu.
- Ezagutzak hedatu edo, besterik gabe, haiei eutsi.
- **Ingelesa eta Frantsesa**
Astelehenetik ostegunera, 15:00retatik 17:00etara, Kultur Etxean.
Informazioa eta izen-ematea Kultur Etxean.

EUSKARA IKASTAROAK

DULANTZIN

LAUTADAKO AEK EUSKALTEGIA

Euskara-eskolak: maila guztiak, titulu eta hizkuntza-eskakizun ofizialak, guraso-taldeak...

Autoikaskuntza: tutore baten laguntzarekin.

Matrikula eta informazioa: 945300408

lautada@æk.eus

BERBALAGUN

Euskaraz aritzeko egitasmoa da.

Euskaldunok, ikasten ari garenok eta nola edo hala moldatzen garenok euskaraz hitz egiteko aukerak izateko guneak sortzea, eta bide batez euskararen normalizazio prozesuan eragitea da helburu nagusia.

NORENTZAT DA BERBALAGUNA?

Euskara ikaslearentzat; euskaraz moldatu bai, baina lasai hitz egiteko konfiantzazko guneak behar dituenarentzat; eta euskaldunarentzat.

GURASOLAGUN

Guraso euskaldunak edota

euskaraz ikasten ari direnak, egoera berdinean dauden beste guraso batzuekin harremanetan jartzeko ekimena da; plazan, parkean, asteburuko txangoetan... familia edo lagun giro guztiz euskalduna sortzeko helburua duena.

Lautadako AEK euskaltegia. 945300408 lautada@æk.eus

Zapatari 31, 01200 AGURAIN



LUDOTEKA

HAURREN DINAMIZAZIO ZERBITZUA

Aisia, joko eta jolaserako haur-zentroa, langile espezializatuen esku eta haurrak hezteko asmoz diseinatutako dinamizazio-programa batekin.

Urritik maiatzera.

Sarrera librea, aretoa bete arte.

Bazkide-txartelarekin: 25€. Hitzartutako Udaletan errolatuta daudenentzat hobaria tasan (- % 60): 10€.

Sarrera: euro bat saioko.

"JOLASEAN" LUDOTEKA

1 eta 7 urte bitarteko haurrentzat (2011n jaioak).

Bi adin-taldetan banatuak:

A Urte bat – Haur Hezkuntzako 1. maila.

B Haur Hezkuntzako 2. maila – Lehen Hezkuntzako 1. maila

Astelehenetik ostegunera, 17:15etik 19:15era; eta larunbatetan 11:30etik 13:30era. Zerbitzuko txanden arabera.



"BETI JOLAS" LUDOKLUBA

8 eta 7 urte bitarteko haurrentzat (2008-2010ean jaioak).

Asteazken eta ostegunetan, 18:15etik 19:15era.

C Lehen Hezkuntzako 2. mailatik 4. mailara.

Gaztelekuan!



DENBORALDIAREN HASIERA FESTA

Urriak 16 astelehena
17:30 – Plazan



LIBURUTEGIA

LIBURUTEGIA

Astelehenetik ostiralera, 16:30etik 20:30era

Urritik ekainera, larunbatetan, 11:30etik 13:30era.

- Funtsen irakurketa eta kontsulta.
- Haur eta familientzako gunea, multimedia-gunearekin.
- Mailegua.
- Hemeroteka
- KZgunea – Internet – Wi-fi
- Liburu digitalen mailegua – e-bookak
- Irakurketa erraza.



IPUIN KONTALARIAK

Liburutegi Egunerako berezia

La dama y el caballero

Urriak 24 asteartea – 17:30 – Ludotekan

Kuentaraba programaren barruan, ipuin honek Erdi Aroko Dulantzira bidaiatzeko aukera emango digu.

IRAKURRITAKO

BERRIA

ANTZERKIAREN TALDEA

Antzezlanean irakurketa antzetzua, entzuleek irakurritakoa ulertzeko behar diren erritmo, intonazio eta adierazkortasun egokiarekin.

Hamabost egunean behingo saioak, urritik maiatzera

Astelehenetan: 19:45etik 20:30era.

Gazte eta helduentzat.

Hasiera: urriaren 23an.

Irakurketa Klubetarako eta Irakurritako Antzerkirako izen-ematea: Kultur Etxean.

IRAKURKETA KLUBAK

“Irakurtzearen eta irakurketak partekatzearen gozamina”

Irakurketa Kluba osatzen du liburu berdina irakurri eta komentatzeko aldizka biltzen den lagun-talde batek, Idoia liburuzainaren laguntzarekin.

Irakurketa Kluba

Hamabost egunean behingo saioak, urritik maiatzera.

Ostegunetan,
19:00etatik 20:30era.

Hasiera: urriaren 19ean.

Oharra: Klubean dagoeneko parte hartu eta jarraitu nahi dutenek berriz eman behar dute izena

IRAKURKETA ERRAZA KLUBA

Jarduera hau irakurtzeko eta ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat da: etorkinak edo atzerritarrak, adinekoak, adimendegaitasunen bat duten pertsonak, etab. Liburu errazak irakurriko dituzte.

Hileroko saioak, urritik maiatzera.

Ostiraletan, 19:30etik 20:30era

Hasiera: urriaren 20an.

Irakurketa Klubetarako liburuak liburutegiak utziko ditu.



DASTAKETA

IRUZKINDUA

Txakolina, Arabako Errioxako ardoa eta Idiazabal gazta Mikel Garaizabalekin Enologoa eta sommelieria

Abenduak 1 ostirala – 19:30
Kultur Etxean – Elebiduna
Leku-kopuru mugatua

Izen-ematea azaroaren 24ra arte, Kultur Etxean – Tokia izen-emateen ordenaren arabera emango da.

Kuota 3€€ Erroldatuentzat % 30eko hobaria: 2,10€€

Hazi Sustapenerako Erakundeak babestua.



ZINEKLUBA

Urritik apirilera, igandeetan

17:00: Haurrentzat

19:00: Gazte eta helduentzat

Denboraldiaren hasiera: **urriaren 1ean, igandean**
Hileko programazioa iragarki-tauletan eta Kultur Etxean

ELKARTEEN MUGIMENDUA

ETXEKO ANDREEN ELKARTEA

Vainicak – Eskulanak – Ehoziriak – Euskal dantzak

Informazio gehiago, izen-ematea eta bazkide berriak: asteartean eta ostegunean, Gizarte Zentroko behe-solairuan, Ronzapil kalean, 16:30etik 18:30era.

PERKUSIO TAILERRA

Haur eta helduak. Urritik Ekaina arte

Asteazkenero 16:30-21:30.

Izen-ematea Kultur Etxean.

Sugargorri Kultur Elkarteak antolatuta.

HAIZE DULANTZI DANTZA ELKARTEA

EUSKAL DANTZAK

Haiza Dulantzi Dantza Elkarteak dantzatzen jarraitzen du.

Anima zaitetz eta dantzatu!

Euskal dantzak, adin guztiak, ordu-tegiak taldeen arabera.

Asteazkenak 17:00-20:30.

Larunbatak 11:00-14:00

Dantza-tailerra 12 urtetik aurrera, larunbatak 11:00-12:00.

Informazio gehiago: 635710462. Izen-ematea Kultur Etxean.



ENEWS-UDAL AGENDA

Nahiko zenuke jaso astero Dulantzín antolatzen diren ekintzen inguruko informazioa?

Alta emateko, sar zaitetz webgunean, oso erraza da. **www.alegria-dulantzi.eus**

Sakatu Dulantziko Agenda eta bete izena emateko orria; hala, gure ENEWS bidez, astero jasoko duzu zure helbide elektronikoan jarduera-eskaintza.

“Ez utzi besteei kontatzen... ! Parte-hartzearen abiapuntua informazioa da”